

JARDUERAK

2026ko urritik 2027ko maiatzera



1 ELT (ELKARRI LAGUNTZEKO TALDEA)

Lgtbi+ errealitate bat bizi duten pertsonen zuzendutako talde-prozesu bat da; nork bere barrena begiratzeko lan bat egitean datza, bakoitzaren gaitasun propioak arakatzeko, horiek indartzeko, eta norbera ahalduentzeko beharrezkoak diren autoezagutza eta autozaintza lantzeko.

Taldea hilean behin elkartuko da (taldeak berak zehaztuko du noiz), Harrotun, 11:00etatik 13:00etara. Zerbitzuko langileek dinamizatuko dute. 18 urtetik gorakoendako.

Izena emateko epea: irailak 1 – 30.

2 LGTBI+ TALDE GAZTEA

Topaketara etortzen diren LGTBI+ gazteen artean laguntza-sareak sortzeko gune bat da. Helburua da gune seguru bat sortzea bizipenak, errealitateak eta esperientziak partekatzeko, eta LGTBI+ gazteei zeharka eragiten dieten gaiak lantzeko.

Taldea hilean behin elkartuko da (taldeak berak zehaztuko du noiz), Harrotun, 18:00etatik 20:00etara. Zerbitzuko langileek dinamizatuko dute. 15 urtetik 18ra bitarteko gazteendako.

Izena emateko epea: irailak 1 – 30.

3 TOPAKETAK

Topaketen helburua da gure gizartearen dauden askotariko identitateak, orientazioak eta adierazpenak dituzten pertsonen elkartzeko leku bat izatea, haien bizitzan eragina duten gaiak barnetik bizi, pentsatu eta hausnartzeko parada izateko.

LGTBI+ pertsonen eta boluntarioen dinamizatzeko dituzte topagune horiek. Orduetgia: 18:00etatik 20:00etara, Harrotun. Data: zehazteke.

- Letraren arabera topaketak (L, G, T, B, I, A, etab.)
- Topaketa intersektionalak (pertsona migratuak eta LGTBI+ errefuxiatuak, etab.)

4 IRAKUIRLE IRAKURKETA-KLUBA

Bi talde: bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Aitor Alonsok dinamizatuko du euskarazko taldea, eta gaztelaniazkoa, Laura Viruek. Dinamizatzaileek erabakiko dituzte irakurgaiak.

Taldeak hilean behin elkartuko dira (taldeek zehaztuko dute noiz), Harrotun, 18:00etatik 20:00etara.

Izena emateko epea: irailak 1– 30.

INFORMAZIO- ETA SENTSI-BILIZAZIO-JARDUERAK

1 ATE IREKIEN EGUNA LGTBI TALDEEKIN ETA ZERBITZUAREN AURKEZPENA

Ate irekien eguna zerbitzua bera eta hiriko LGTBI kolektiboak ezagutzera emateko. Nola lan egiten duten eta sarea osatzeko hirian zer baliabide dauden azalduko da.

URRI 02 | 18:00-20:00 | Harrotu | Sarrera, leku guztiak bete arte

2 MAHAI-INGURUA: TRANSFOBIA ETA BIFOBIA. ZER DAGO GORROTO-DISKURTSOEN ATZEAN? ELISA COLL ETA VALENTINA BERREN ESKUTIK

Bi-trans aliantzei buruz hitz egiteko eta horiek ikusarazteko hitzaldia. Izan ere, nagusitzen ari diren gorroto-diskurtsoek berriz ere agerian utzi dituzte transfobiaren eta bifobiaren arteko paralelismoak: bitartasun baten hausturaren aurkako arbuioa.

URRI 23 | 18:00-20:00 | tokia zehazteke | Sarrera libre, leku guztiak bete arte.

3 NORBERA AHALDUNTZEKO LANTEGIAK

1 NORBERAREKIKO TRATU ONA LANTEGIA, SAREREN ESKUZ (GIB / IHESREN INGURUKO LAGUNTZA ETA PREBENTZIOA)

Sexualitateari buruzko lantegiak, artea eta sexu-hezkuntza uztartuz. Hauek izanen dira landuko diren gaiak: harremanen desgenitalizazioa, gorputz-aniztasuna, erotika eta desioak, eta, etika harremanetan.

URT 14, 21, 28 ETA OTS 4 (OSTEGUNEZ), | 17:30- 19:30 | Harrotu |

Izen-emateak: abenduaren 1etik aurrera.

2 LANTEGIA, NOLA ERANTZUN LGTBIFOBIA SARETAN, DAVID JIMENEZEN ESKUTIK

Sare sozialetako gorroto-diskurtsoei eta desinformazioari aurre egiteko tresnei buruzko lantegia.

MARTX 18 (OSTEGUNEZ) | 17:30- 19:30 | Harrotu | Izen ematea: otsailaren 1etik aurrera.

3 LODIFOBIA ETA INDARKERIA ESTETIKOA LANTEGIA, MAGDA PIÑEIROREN ESKUTIK

Lantegi honetan, presio estetiko eta horrek osasunean dituen ondorioak jorratuko dira, ikuspegi intersektional batetik betiere, generoa, identitateak, orientazioa eta adierazpen ez-normatiboak, arrazializazioa eta pisua kontuan hartuta.

APIR 8, 15, 22 (OSTEGUNEZ) | 17:30- 19:30 | Harrotu | Izen-emateak, martxoaren 1etik aurrera

4 MUSIKA-SORKUNTZA LANTEGIA ARANTZA IBARRAREN NOTAS DE VIDA (BIZI-OHARRAK) LIBURUAREN INGURUAN, MUSIKAGUNEREN ESKUTIK

6 saioko lantegi baten bitartez, arte- eta musika-prozesu komunitario bat garatu nahi da, pertsona guztiak parte har dezaten Arantza Ibarren "Bizi-oharrak" liburuaren inguruko abestien sorkuntzan, ondoren, liburuaren aurkezpenera musikaz laguntzeko. LGTBI pertsonen aurkako adinkeria du ardatz, zehazki emakume bisexual bati buruzkoa.

2 orduko 6 saio, urtariletik aurrera. Data zehatza, ordua eta tokia zehazteke. | **Izen-emateak: abenduaren 1etik aurrera.**

4 GIZARTE- ETA KULTURA-JARDUERAK

1 MI QUERIDA SEÑORITA (NIRE ANDEREÑO MAITEA) FILMAREN PROIEKZIOA, ETA SOLASALDIA MER GOMEZ AKTIBISTA INTERSEXUALAREN ETA FERNANDO GONZALEZ ZINE-ZUZENDARIAREN ESKUTIK.

Filmak Adelaren istorioa kontatzen du. Adela familia kontserbadore bateko alaba bakarra da, eta familiaren zaharkin den-dan eta berak ematen dituen katekesi-eskoletan murgilduta igarotzen ditu egunak, amaren babesak eta bere intersexualitateari buruzko isiltasunak markatuta, eta intersexuala denik ez dakien arren, horrek bere bizitza baldintzatzen du.

1972ko izen bereko filmaren egokitzapen libre da; Oscar sarrietako atzerriko film onenerako izendatu zuten.

URRI 15 | 18:00-21:00 | Emakumeen Etxeko auditoriumean | Sarrera libre, leku guztiak bete arte.

2 ZARATA PROIEKTUA IKUSENTZUNEZKO GIDA, HODEI ARRASTOAREN ESKUTIK

Ibilbide horretan 10 gune daude, eta guneetako bakoitzean ahots desberdin bat entzuten da (ahots guztiak LGTBI+ kolektiboko kide diren euskal artistenak dira). Hamar gune, hamar istorio. Istorio batzuk poetikoak dira, beste batzuk politikoak, eta beste batzuk dramatikoak... Gauza bera dute guztiak amankomunean: LGTBI+ kolektiboari buruzko istorioak dira.

Otsailean, data zehatza eta tokia zehazteke. | Audio-gida 4 orduz egonen da entzungai goizez, eta 4 orduz arratsalde. Sarrera libre, leku guztiak bete arte. Jarduera EUSKARAZ da, gaztelaniaz entzuteko aukerarekin.

3 ARANTZA IBARRAREN NOTAS DE VIDA (BIZI-OHARRAK) LIBURUAREN AURKEZPEN MUSIKATUA, MUSIKAGUNEREN PARTE-HARTZE BEREZIAREKIN

Liburu honetan, Lorea, pianoa jotzen duen 69 urteko emakume bisexualaren istorioa kontatzen da. Liburu hau Loreari bidean lagundu dioten emakumei eginiko omenaldi bat da, munduak behin eta berriz ikusezin bihurtu nahi izan dituen haiei, hain zuzen ere.

MUSIKAGUNEK dinamizatutako musika-lantegietan parte hartu dutenek ere esku hartuko dute aurkezpenean. Kontzertu hau ez da musika soilik: adinkeraren aurkako ekintza bat da, askatasunaren aldeko kantu bat eta, dagoeneko, existitzeko baimenik eskatzen ez duten emakumeen aldarrikapena.

MARTX 11 | 18:30-20:30 | Emakumeen Etxeko auditoriumean | Sarrera libre, leku guztiak bete arte.

4 APOLO, EDO IZATEN AHAL ZIREN ISTORIOAK ANTZEZLANA, OIER ZUÑIGAREN ESKUTIK

LGTBIAQ+ kolektiboaren bizipen eta istorio ukatuak edo ikusezinak biltzen dituen antzerki-ikuskitzuna. Erredentzioaren eta itxaropenaren bilaketa, gauaren, oroimenaren, fabulazioaren eta izaten ahal zirenen ospakizunaren bidez. Iraupena: 70 min.

Data eta tokia zehazteke. Sarrera doan, leku guztiak bete arte.



Iruñeko Udaren Zerbitzua LGTBI kolektiboaren inguruan informatzeko eta haien parte-hartzea nahiz eskubideak sustatzeko.

San Gregorio k. 28. 31001. Iruña
Tel.: 948 226 326. Mug. 699 384 965
harrotu@pamplona.es

ORDUTEGIA. Astelehenetan: 10:00-15:00
Asteartetik ostiralera: 10:00 – 14:00 eta 16:30 – 20:00
Larunbatetan: 11:00-14:00

ZERBITZU IRAUNKORRAK

1. LGTBIQ+ informazio-zerbitzua
2. Espazioak lagatzea eta mediateka mailegatzea
3. LGTBifobiaren aurkako Behatokia

BIDALI ZURE PROPOSAMENAK:

